

Udal zergen karga-tasak behin betiko onartzea, 2016ko ekitaldia

Osoko Bilkurak, 2015eko urriaren 15ean egindako bileran, 2016ko ekitaldirako udal zergen karga-tasak hasiera batez onestea erabaki zuen.

Karga-tasa horiek jendaurrean egon dira 30 egunez eta ez da erreklamaziorik egon.

Ondorioz, Udal zergen karga-tasak behin betiko onartutzat jotzen dira.

Beran, 2015eko abenduaren 14an.–Alkatea, Josu Iratzoki Agirre.

ERANSKINA

2016. urteko udal zergen karga-tasak

1. Lur-ondasunen gaineko kontribuzioari %0,28ko karga-tasa ezartzea.
2. Hirilurren balio igoeraren gaineko zergaren karga-tasa aldatzea: igoera errearen zenbatekoa finkatzeko, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikularen laukian agertzen diren urteko gutxieneko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa %15 izanen da.
3. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari %4,5eko karga-tasa ezartzea.
4. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,3 gutxieneko indizea aplikatzea.